

PEDRO IGNACIO DE BARRUTIA. — *Gabonetako ikustizuna (Acto para la Nochebuena)*. Argiltapen kritikoa, itzulpena eta zenbait ikerlan. Edición crítica, traducción y varios trabajos. Arabako Foru Aldundia. Argitalpen saila. Gasteiz, 1982.

Liburu ederra benetan, ongi taxutua. Atarian Enrrike Knörrren bi hitz aurkezpenez eta bere ondotik XVIII. mendeko antzerki honek orainarte izan dituen hiru argitalpenen azaleko orrialdeak: 1897ko *Euskalzale*, 1960ko *Euskera* (gero, 1982an mendeurrenaren ospatzeaz Gipuzkoako Foru Diputazioak faksimilez birargitaratu zuen) eta 1965ean Auspoa Liburutegiak eman zuen *Teatro Zaarra*.

Lehen lan kritikoa, eta sakonena noski, Joseba Andoni Larraren «Barrutiaren *Acto para la Nochebuena* eta teatro erlijioso erromanikoa»; ondorean, egile berak «*Acto para la Nochebuena*. Texto y traducción» ondotik anitz ohar emanaz. Jon Kortazarrek «*Acto para la Nochebuena* de Pedro Ignacio Barrutia (1682-1759). Literatur analisia», euskaraz eta gazteleraz. Juan M.<sup>a</sup> Lekuonak «Barrutiaren metrikaz». Eta, bukaeraz, Jose M.<sup>a</sup> Velez de Mendizabalek «Pedro Ignacio Barrutia Basagoitia. Biografi zertzeladak». Eta, azken orrian, eraskin gisa, Azkuek antzerkia eskuratzean Juan Carlos de Guerra-ri egin zion gutunaren fotokopia.

Lan horiek sinatzen dituztenak, beste gabe ere, guziak eskaintzen digute jakintza eta azterlari mailako garantia eta ez dago esan beharrik lan serioa dela.

Liburu hontan eskaintzen diren azterlanak oso onak dira. Aurrerantzean Barrutia eta bere lana ezagutu nahi dutenek eskuratu beharrezko liburua.

Obra beragatik, aburu orokorrez, ez goaz ezer gehitzera bere garaian aldizkari hontan esandakoari (ikus *Egan*, 1969, 1-2 zenb., 105-107 orr.). Erreseina hartan, *Teatro Zaarra* liburuko hiru laneri buruzkoa zenez, geroztik Sor Luisa egile izenez ezagutzen zen *Gavon sariac* delakoaren azterketa zehatzago bat burutu nuen, bere egiletza Peñafiorida Kondeari emanaz, *Euskera* aldizkarian (XX, 1975, 453-458 orr.), geroago *Literaturaren inguruan* (1980) saiaera liburuko kapitulu batean berriaz emango nuena. Baina, Barrutiaren lanez ez dut eritziak aldatu beharrik. Bego berean adierazpen labur hura.

Barrutiaren lanarekiko aburuak, aldatu ez, baina zerbait gehitu bai, orain eskuizkribua ezagutzen dugunez. Guerra zenaren agiritegitik zelan irten zen eta non eta nola harrapatu zenik ez badakigu ere, osagarri zenbait gaineratu beharrez gaudе. Hara nola, orain hitz batzuren zuzenketak egin beharrez gainera non konturatzen garen argitalpen horietan zazpi lerro falta direla. Lehenik, hemen aipatzen dugun edizio hontan, 75. lerroan honako hau sartu behar da:

s. Josef — *Betizaode Jauna favoreguinen  
oxala nic banequi agradezizen  
Zeuzara enexauna zeurea nozu  
nigaz gura dozuna eguin eguizu* —vase—

Orain erabiltzen dugun grafian honela izango litzake:

(s. Josef — *Beti zoade Jauna faboreginen  
oxala nik baneki agradeziten  
Zeu zara ene Xauna zeurea nozu  
nigaz gura dozuna egin egizu.*)

Aurrerago ordea, 145. lerroan (edizio honek ematen duen zenbakiari jarraituz), beste hau gehitu behar da:

chato — *Ordu onetan nor ete dabil* — asoma  
*Xangoicoa biz Zurequin*

Hemen ere, grafia gaurkotuz, era hontara ulertu beharko genuke:

(Txato — *Ordu onetan nor ete dabil  
Xangoikoa biz Zurekin*)

Falta den beste zatitxoa, aipatzen dugun edizio honetan 342. lerroan behar zuena da. Hor honako hau behar da:

*sein demporan etara jauzan guztiaq pica mantarrac*  
(zein denporan atara jeutzan guztiak pika mantarrak).

Lakarrak 76. orrialdearen barrenean aitortzen du eskuizkribu orijinala eskuetan ez edukitzearen kaltea zein handia den, zenbait pasarte ilun behar bezala argitu ezina izan zuelako. Baina, esan beharra dago, zazpi lerrook eta beste zenbait hitz gaizki jasoagatik, bere teoriak ez direla aldatzen. Kritika aldetik dagoenean uzteko bezala aurkitzen dela, inongo kezkarik gabe. Hori bai, lastima izan dela antzerkia bere osotasunean, testu zehatzagoari loturik ez egotea. Baina hori ez da ez Lakarraren eta ezta beste lagunkideen errua: berea ez zen, eskuizkribuaz jabetu zen norbaitena baizik. Dena dela, oso pozgarri zaigu eskuizkribu orijinala ez dela galdu jakitea eta laster izango dugula edonoren aukeran.

*J. S. M.*